BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

941

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Amurrioko udalerrian (Araba) eta Tubos Reunidos, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Tubos Reunidos, S.A. enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Amurrioko udalerrian (Araba) altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Amurrioko Udalak 2006ko uztailaren 12an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta agiri tekniko hauek aurkeztu ziren:

- «Tubos Reunidos, S.A. enpresaren instalazioetarako ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proiektua» (2006ko abendua).

- «Laburpen ez-teknikoa» (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Tubos Reunidos, S.A. enpresak, besteak beste, baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuak ekoizteko baimenak, 2004ko otsailaren 20koa eta 2004ko abuztuaren 12koa, eta 2005eko azaroaren 15eko ondorengo aldaketa, hondakinen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki; eta isurtzeko baimenak, 1991ko maiatzaren 24koa eta 2005eko urtarrilaren 27koa, isurketen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Amurrioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari egin zitzaien kontsulta.

2007ko martxoaren 22an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Tubos Reunidos, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu direla egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso dira.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 6an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Amurrioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 14an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Tubos Reunidos, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko apirilaren 24an, sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Tubos Reunidos, S.A. enpresak aurkeztutako proiektuaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgu publikora isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hori zuzentzeari dagozkionak. Espedientean parte hartzen dutela frogatzeko, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Tubos Reunidos, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Amurrioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzeko den arloko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki, Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: altzairua fabrikatzeko sektorerako BREF agiria (Best Available Techniques Document on the Production of Iron and Steel), 2005eko azarokoa, eta beroan ijezteko sektorerako BREF agiria (Referente Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metals Processing Industry), 2005eko azarokoa. Gainera, arloko araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da bereziki urtarrilaren 31ko 117/2003 ED, disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren KOHen isuria murriztekoa.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiekin lotuta txostena erantsi da I. eranskinean, eta ebazpen-proposamena egin eta Tubos Reunidos, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 11n emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Amurrioko udalerriko (Araba) Sagarribai auzoko 2. zenbakian eta IFK: A-48011555 zenbakia duen Tubos Reunidos, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 2.2 kategorian, «Galdaketarako edo altzairu gordina ekoizteko instalazioak (galdaketa primario edo sekundarioa), orduan 2,5 tonatik gorako ahalmeneko galdaketa jarraikiko instalazioak barne»; 2.3.a) kategorian, «Metal ferrosoak eraldatzeko instalazioak (orduan 20 tona altzairu gordinetik gorako ahalmeneko beroko ijezketa)», eta 2.6 kategorian, «Metal eta gai plastikoen gainazalak prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez

tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean».

Tubos Reunidos, S.A. enpresa Amurrioko udalerriko (Araba) Sagarribai auzoko 2. zenbakian dago. Lursailaren azalera orokorra 647.194 m^2-koa da.

Lehengaia (txatarra) 100 t-ko edukiera duen arku elektrikoko urtzeko labean sartzen da. Jarraian zepa bainutik bereizten da eta galda-altzairua koilara-labera igarotzen da (finketa).

Altzairu likidoa isurtze jarraituko 4 lerroen artean banatzen da. Lingote-ontzia edo moldea dute horiek, eta urez hoztuta daude. Azkenik, produktua ebaki egiten da, eta sekzio zirkularreko altzairuzko totxoa lortzen da.

Beroko ijezketa-prozesu baten bidez, soldadurarik gabeko hodiak ekoizten dira. Altzairuzko barra zilindrikoak mutur batetik puntzonatzen dira, eta zola birakariko labe batean berotu ondoren, zulaketa-lerrora igarotzen dira, profil huts bat lortzeko. Berriz berotu ondoren, ijeztu eta tenkatu egiten dira.

Lortutako hodiak behin betiko luzeretan ebakitzen dira eta hozteko sehasketara igarotzen dira. Azkenik, zuzenketa eta azken kontrolak egiten dira.

Beroan ijeztutako hodien ekoizpenaren zati batek desugertzeko eta fosfatatzeko eta olio erreaktiboko azal-tratamendu bat hartzen du. Ondoren, hodiak prentsa hidraulikoan punteatzen dira, tenkatu aurretik. Hodi tenkatuek tenperatura-tratamendua hartzen dute labe jarraituan, eta ondoren zuzenketako akabera, ebaketa eta azken ikuskapena igarotzen dituzte. Azkenik, azken olioztatzea aplikatzen da, biltegiratu eta bidali aurretik.

Urtzeko labeak keak eraузteko (bobedako 4. zuloa) eta mahuka-iragazki bidez arazteko sistema bat du.

Ekoizte-prozesuan sortutako isuriek (berogailuak, oxiebaketa, labeak) kanpoaldera xurgatzeko kanpaia dute.

Desugertzeko kubetek xurgapena eta garbiketa-dorreko arazketa-sistema dute.

Instalazioan sortutako efluenteen artean 6 isurtze-puntutatik ibilgura isurtzen diren ur sanitarioak daude; 5 isurtze-puntu Nerbioi ibaira doaz, eta azkena, Nerbioi ibaiaren adarra den Inordio errekastora.

Bestetik, ez da industria-uren isurketarik sortzen, hozte-zirkuituak itxi egin baitziren, instalazioan ur-kontsumoa murriztearren.

Azkenik, instalazioan sortutako euri-urek ez dute kutsagarririk, txatar-parkean eta zepa biltegiratzeko eremuan sortutakoek izan ezik.

Proiektuak Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak erabiltzen ditu: NO_x isuri txikiko bigarren belaunaldiko erregailuak erabiltzea; airearen aurreberokuntzako tenperatura mugatzea NO_x isuria murrizteko; gasak biltzeko sistemaren eraginkortasuna 4. zuloaren eta Canopy-aren bidez; partikulak mahuka-iragazki bidez arazteko sistema; biltegiratzeko eremuetako hustubideko ura arazketa-instalazioan tratatzea; zirkuitu itxiko hozte-sistemak; prozesuko urak berrerabiltzeko tratatzea, > % 95eko birzirkulazio-indizeekin zirkuitu itxietan lan egiteko.

Bigarrena.– Tubos Reunidos, S.A. enpresak Amurrioko udalerrian (Araba) sustatutako altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Tubos Reunidos, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Tubos Reunidos, S.A. enpresaren fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо. Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Tubos Reunidos, S.A. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa Taldea	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	1002267-01	Zali-berogailu horizontalak	10	0,8	C	550.547	4.769.134
2	1002267-02	Zali-berogailu bertikala (erdia)	18	0,6	C	500.600	4.769.116
3	1002267-03	Berogailu/lehorgailu bertikala (eskuina)	18	0,8	C	500.561	4.769.112
4	1002267-04	Makroeraso azidoa	12	0,3	C	500.635	4.769.004
5	1002267-05	1. oxiebaketa (eskuina)	19,3	1	C	500.563	4.769.032
6	1002267-06	2. oxiebaketa (ezkerra)	19,3	1	C	500.561	4.769.032
7	1002267-07	Zola birakariko labea	42	2,35	C	500.548	4.769.029
8	1002267-08	Mandrinoak berotzeko labea	15	0,8	C	500.526	4.769.089
9	1002267-09	Laburtzeko labea	38	1,5	C	500.511	4.769.242
10	1002267-10	Kalibratzeko labea	26	1,5	C	500.520	4.769.169
11	1002267-11	OCTG tinkatzeko labea	8	1,43	C	500.593	4.768.873
12	1002267-12	Desugertze azidoko kubeten xurgapena	11,5	1,54	C	500.417	4.769.494
13	1002267-13	7-8 kubetak berotzeko erregailuak	12	0,21	C	500.416	4.769.496
14	1002267-14	11-12 kubetak berotzeko erregailuak	12	0,21	C	500.507	4.769.495
15	1002267-15	JN-1 labea. Burua	15	0,2	C	500.394	4.769.597
16	1002267-16	JN-1 labea. Isatsa	15	0,2	C	500.389	4.769.641
17	1002267-17	LOI labea. Burua	14	0,4	C	500.394	4.769.595
18	1002267-18	LOI labea. Isatsa	14	0,315	C	500.388	4.769.640
19	1002267-19	LOI labea. Berokuntza	15	0,5	C	500.393	4.769.603
20	1002267-20	JN-3 labea. Suberatzea	16,1	0,47	C	500.435	4.769.434
21	1002267-21	Altzairutegiko xurgapen/iragazpena	30,35	4,6	A	500.532	4.769.329
22	1002267-22	OCTG lakatzeko makina	10	0,34	B	500.451	4.769.037
23	1002267-23	Lohiak lehortzeko instalazioa	6,2	0,32	B (*)	500.673	4.769.521
24	1002267-24	Prestaketa/akaberako lakatzeko makina	7,6	0,6	B	500.386	4.769.410
25	1002267-25	Piezak berotzeko labea	8,5	0,5	C	500.485	4.769.043
26	1002267-26	Reeling (desmandrinatzeko makina)	10	0,85	C	500.527	4.769.156
27	1002267-27	SPV ebaketa-zikloia	2,5	0,25	C	500.429	4.769.744
28	1002267-28	Tenplatzeko labea (berria)	14,6	0,28	C	500.473	4.769.109
29	1002267-29	Tenplatzeko labea (berria)	14,6	0,32	C	500.476	4.769.081
30	1002267-30	Tenplatzeko labea (berria)	14,6	0,28	C	500.479	4.769.052
31	1002267-31-D	Tailer bateko soldadura-instalazioko 1. irteera	Ez-sistematikoa				

32	1002267-32-D	Tailer bateko soldadura-instalazioko 2. irteera	Ez-sistematikoa
33	1002267-33-D	1. multzo elektrogenoa	Ez-sistematikoa
34	1002267-34-D	2. multzo elektrogenoa	Ez-sistematikoa

Sustatzaileak foku ez-sistematiko guztien garaiera, diametroa eta UTM koordenatuak aurkeztu beharko ditu.

Gainera, isuri barreiatuak sortzen dira altzairugintza- eta ijezketa-pabiloian. Isuri horien zati bat pabiloiaren goialdean kokatutako xurgapenak biltzen ditu. Isuri barreiatuak sortzen dira txatarra, zepa zuria eta herdoil-azala biltegiratzeko eta maneiatzeko eremuan ere.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
2. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
3. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
4. fokua	HCl	30 mg/Nm^3
5. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
6. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
7. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
8. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
9. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
10. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
11. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
12. fokua	HCl	30 mg/Nm^3
	Partikulak	30 mg/Nm^3
13. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
14. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
15. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
16. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
17. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
18. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
19. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
20. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
21. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
	NOx	300 ppm
22. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
	KOHak (KOG gisa neurtuta)	75 mg C/Nm^3
23. fokua	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm

	Partikulak	150 mg/Nm^3
24. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
	KOHak (KOG gisa neurtuta)	75 mg C/Nm^3
25. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm
26. fokua	Partikulak	150 mg/Nm^3
27. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
28. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
29. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
30. fokua	NOx	400 mg/Nm^3
	CO	500 ppm

«Hainbat estaldura mota» jarduerarako isuri barreiatuen muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) % 20koa izango da.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtutakoak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5 faktoretik gora gainditzen ez badu.

Jarraiki neurtutako parametroei dagokienez, isurtzeko muga-balioak betetzen direla ulertuko da, urtebetean neurtutako orduko batez besteko balio balioztatuen % 94k ezarritako muga gainditzen ez badu.

Konfiantza-tartearen balioak 100eko 95ean, isurtzeko gehienezko balioetan, ez ditu isurtzeko muga-balioaren ehuneko hauek gainditu: karbono monoxidoa, sufre dioxidoa eta nitrogeno dioxidoa, % 25; guztizko partikulak eta karbono organikoaren guztizkoa, % 30; hidrogeno kloruroa eta hidrogeno fluoruroa, % 40.

Orduko batez besteko balio balioztatuak benetako ustiapen-epean zehar zehaztuko dira, orduko batez besteko baliozko balioak oinarri hartuta, eta horiek lehen zehaztutako konfiantza-tartea kendu ondoren neurtuta.

Erregistro-denbora ez-baliozkotzat jotzen dira neurketa-ekipoen mantentze-lanak, matxurak edo funtzionamendu okerra.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistema.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Zehazki, sarbide, plataforma eta baranda-kontuetan, eta tximiniak eta isurtzeko hodiak egokitzeko gaietan, kontuan izan beharko da isuriak neurtzeko sistema jarraikiak kalibratzeko jarraibide teknikoan ezarrita dagoena; ikuskarientzako segurtasun-bermea izan beharko dute.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

Isuri barreiatuak murriztearren, pabiloiaren goialdean kokatutako xurgapen-sistema bat egongo da.

B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: altzairuzko hodiak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.22.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koordenatuak
1	Ur sanitarioak	Bulegoetako ur sanitarioak	Nerbioi ibaia	Ibaizabal	I	X: 500.355 Y: 4.768.995
2	Ur sanitarioak	Aldageletako ur sanitarioak	Nerbioi ibaia	Ibaizabal	I	X: 500.327 Y: 4.769.074
3	Ur sanitarioak	Botikineko ur sanitarioak	Nerbioi ibaia	Ibaizabal	I	X: 500.355 Y: 4.768.973
4	Ur sanitarioak	Baskulako ur sanitarioak	Nerbioi ibaia	Ibaizabal	I	X: 500.217 Y: 4.769.391
5	Ur sanitarioak	Atezaindegiko ur sanitarioak	Nerbioi ibaia	Ibaizabal	I	X: 500.216 Y: 4.769.288
6	Ur sanitarioak	Hotzean tenkatzeko ur sanitarioak	Inordio errekastoa	Ibaizabal	I	X: 500.356 Y: 4.769.488

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emaria eta bolumena.

a) 1. isurketa: bulegoetako ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	0,7 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	16,5 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	5.538,50 m^3/urte

b) 2. isurketa: aldageletako ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	1,37 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	32,9 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	10.858,75 m^3/urte

c) 3. isurketa: botikineko ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	0,01 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	0,22 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	73 m^3/urte

d) 4. isurketa: baskulako ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	0,02 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	0,39 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	127,75 m^3/urte

e) 5. isurketa: atezaindegiko ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	0,02 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	0,55 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	182,50 m^3/urte

f) 6. isurketa: hotzean tenkatzeko ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	0,23 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	5,53 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	1.825 m^3/urte

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgura egindako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) Isurketa: ur sanitarioak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Solido esekiak	80 mg/l
OEK	160 mg/l
OEB5	40 mg/l
Amoniakoa	15 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l
Detergenteak	2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak tratamendu egokia instalatu beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik hartzen ditu barne eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

B.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek hartuko dituzte barne funtsean:

Gauzatutako jarduketak:

1. isurketa: bulegoetako ur sanitarioak.

3 gorputzeko hobi septikoa, harri-iragazkien hirugarren gorputz bat duena. Bolumen erabilgarriko 32 m^3 ditu.

2. isurketa: aldageletako ur sanitarioak.

3 gorputzeko hobi septikoa, harri-iragazkien hirugarren gorputz bat duena. Bolumen erabilgarriko 56 m^3 ditu.

3. isurketa: botikineko ur sanitarioak.

Hobi septikoa, 4 biztanle baliokideko tratamendu-ahalmena duena.

4. isurketa: baskulako ur sanitarioak.

1.000 litroko edukierako hobi septikoa, 8 biztanle baliokidekoa.

5. isurketa: atezaindegiko ur sanitarioak.

Hobi septikoa, 10 biztanle baliokideko tratamendu-ahalmena duena.

6. isurketa: hotzean tenkatzeko ur sanitarioak.

Aireberritze luzea eta dekantagailu sekundarioa, 100 biztanle baliokiderako taxutua.

Gauzatzeko dauden jarduketak:

● Txatar-parkeko euri-urei dagokienez, gainazal horretan sortutako jariatze-urak bildu eta isuri aurretik dekantagailu batera eraman behar dira. Txatar-parkeko euri-urak bildu eta tratatzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, hori burutzeko epe zehatzak jasotzen dituena.

● Era berean, zepak tratatzeko eremuko euri-urak bildu eta tratamendu egokia emateko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, hori burutzeko epe zehatzak jasotzen dituena.

● Industria-uren isurketa zero dela egiaztatzen duen txostena aurkeztu beharko da, erakunde laguntzaileak egindakoa.

Halaber, zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatzean sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Tubos Reunidos, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Horretarako bideragarritasun teknikoa dagoenean, eta proiektuan dagoen HUA abian jartzean, orain baimentzen diren isurketak saneamendu-sare nagusira konektatuko dira.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_o \times Km$.

$Km = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Km = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: bulegoetako ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 5.538,50 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 0,5 x 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,62500 x 0,01202 = 0,00756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 5.538,50 x 0,00756 = 41,87 euro/urte.

2. isurketa: aldageletako ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 10.858,75 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 0,5 x 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,62500 x 0,01202 = 0,00756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 10.858,75 x 0,00756 = 82,09 euro/urte.

3. isurketa: botikineko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokirik gabe K_4: Kategoria-eremua: I	V = 73 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 2,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 2,5 x 1,25 = 3,12500.

P_u = 3,12500 x 0,01202 = 0,03756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 73 x 0,03756 = 2,74 euro/urte.

4. isurketa: baskulako ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokirik gabe K_4: Kategoria-eremua: I	V = 127,75 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 2,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 2,5 x 1,25 = 3,12500.

P_u = 3,12500 x 0,01202 = 0,03756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 127,75 x 0,03756 = 4,80 euro/urte.

5. isurketa: atezaindegiko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokirik gabe K_4: Kategoria-eremua: I	V = 182,50 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 2,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 2,5 x 1,25 = 3,12500.

P_u = 3,12500 x 0,01202 = 0,03756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 182, 50 x 0,03756 = 6,85 euro/urte.

6. isurketa: hotzean tenkatzeko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1.999 biztanle baliokide arte K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 1.825 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 0,5 x 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,62500 x 0,01202 = 0,00756 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 1.825 x 0,00756 = 13,80 euro/urte.

Isurien kontrol-kanona = 41,87 + 82,09 + 2,74 + 4,80 + 6,85 + 13,80 = 152,15 euro/urte.

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurtzeko baimenaren baldintzak edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez diren artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurketen kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin (TRLAren 113.7. artikulua).

B.1.3.– Fabrikan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Amurrioko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 3. prozesua: «Hotzean tenkatzea».
  - 1. hondakina: «Xaboi-lohiak».
    - Identifikazioa: A48011555/0100002822/3/1.
    - Hondakinaren kodea: Q8//D9//P/S19//C24//H5//A231(1)//B3124.
    - EHZ: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 t.

Hodiak hotzean tenkatzeko prozesuan sortzen da. Identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan eta, bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Azido klorhidriko agortua».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//R5//L27//C23//H8//A231(1)//B3124.

– EHZ: 060106.

– Urtean sortutako kantitatea: 303 t.

Desugertzeko hiru kubetetako azido agortua da, hortik erauzten dena, eta kalitate-kontroletan sortutakoa. Erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

○ 3. hondakina: «Fosfatatzeko lohiak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L/P27//C23//H5//A231(1)//B3124.

– EHZ: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 t.

Fosfatatzeko kubetan sortzen diren burdina-gatzak dira, bertan dekantatzen direnak. Prentsa-iragazkian lehortzen dira eta identifikatutako edukiontzian biltzen dira sortzen den postuan eta, bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 4. prozesua: «Gas efluenteak araztea».

○ 1. hondakina: «Ke-arazketako mahuka-iragazkiak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//P/S35//C11/18//H13//A231(1)//B0011.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 t.

Gasak arazteko sistemaren iragazkietako mahukak aldatzean sortzen da. Big-bag identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 2. hondakina: «Altzairutegiko hautsa».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//R4//S25//C18/11//H14/13//A231(1)//B0011.

– EHZ: 100207.

– Urtean sortutako kantitatea: 4500 t.

Urtzeko eta fintzeko labeak isuritako gasak iragaztearen ondorioz sortzen da. Toberetan biltzen da, eta hortik zuzenean biltzen du kudeatzaile baimenduak.

○ 3. hondakina: «Dekantazioko altzairutegiko hautsa».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q9//D13//S25//C11/18//H14/13//A231(1)//B0011.

– EHZ: 100207.

– Urtean sortutako kantitatea: 90 t.

Hodi erradiatzaileetako hautsaren dekantazio gisa sortzen da. Big-bag identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

● 5. prozesua: «Hondakin uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Araztegiko lohi-opilak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//P/S8/27//C24/51//H13//A231(1)//B0006.

– EHZ: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 300 t.

Prentsa-iragazkiko lohi baztertuak dira. Kubetaren barruan egitura estalian kokatutako metalezko edukiontzi irekian biltzen dira, prentsa-iragazkiaren azpian.

○ 2. hondakina: «Mekanizazioko lohiak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//P8//C51//H5//A231(1)//B0006.

– EHZ: 190813.

– Urtean sortutako kantitatea: 2500 t.

Prentsa-iragazkiko lohi baztertuak dira. Bidoi identifikatuan biltzen dira eta autokudeatu egiten dira.

● 6. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A231(1)//B0019.

– EHZ: 130113.

– Urtean sortutako kantitatea: 60 t.

Mantentze-lanetako prozesuetako olioa zuzeneko hozte-zirkuituko ur-araztegiko dekantagailuan flotazioz bereizitako hondakin oliotsuarekin batera kudeatzen da. Bidoi identifikatuetan biltzen da, eta araztegikoa zuzenean biltzen du kudeatzaile baimenduak.

○ 2. hondakina: «Berun azidozko bateriak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A231(1)//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 600 kg.

Bateria erabiliak birjartzean sortzen da. Edukiontzi identifikatuetan biltzen da berariazko eremuan.

○ 3. hondakina: «Pila erabiliak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C7/11/16//H6/14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 70 kg.

Pila agortuak birjartzean sortzen da. Edukiontzi identifikatuetan biltzen da berariazko eremuan.

○ 4. hondakina: «Fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 360 kg.

Lanpara erabiliak birjartzean sortzen da. Kutxa identifikatuan biltzen da berariazko eremuan.

○ 5. hondakina: «Material elektriko eta elektronikoa».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/5.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 800 kg.

Ekipo elektriko eta elektronikoak aldatzean sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da berariazko eremuan.

○ 6. hondakina: «PCB duten transformadoreak eta kondentsadoreak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/6.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15//S/L10//C32//H6/7//A231(1)//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuaren hondakin gisa sortzen da; kudeatzaile baimenduari entregatzeko erretiratzen da zuzenean.

○ 7. hondakina: «Koipe erabiliak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/7.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//P19//C51/18//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 120112.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 t.

Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuko hondakin gisa sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 8. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/8.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 12,8 t.

Mantentze-lanetako sailean piezak eta makinak garbitzean sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 9. hondakina: «Hidrokarburo urtsua».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/9.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//D15//L9//C51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 130701.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Disolbatzaile gisa gasolioa erabiliz mantentze-lanak eta tresnen garbiketa puntualak egitean sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 10. hondakina: «Hondar-taladrina».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/10.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//R13//L9//C51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 800 kg.

Mekanizazio-eragiketetan taladrina erabiltzean hondakin gisa sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 11. hondakina: «Lakak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/11.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L5//C41//H3b//A231(1)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 3 t.

Hodi batzuen akaberan disolbatzaile-berniza erabiltzen duen lakatzeko makinaren mantentze-lanetan eta garbiketan sortzen da. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 12. hondakina: «Hondakin ebakitzaile eta zorrotzak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/12.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S1//C35//H9//A231(1)//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Zerbitzu medikoko azpiprozesuan sortzen da. Zuzenean biltzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 13. hondakina: «Errebelatzeko disoluzioak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/13.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L16//C24//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 090103.

– Urtean sortutako kantitatea: 600 kg.

Zerbitzu medikoan sortzen da erradiografiak errebelatzean. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 14. hondakina: «Finkatzeko disoluzioak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/14.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L16//C10/23//H14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 090104.

– Urtean sortutako kantitatea: 600 kg.

Zerbitzu medikoan sortzen da erradiografiak errebelatzean. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 15. hondakina: «Plastikozko ontzi huts kutsatuak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/15.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Olioak, pinturak, disolbatzaileak, etab. izan dituzten plastikozko ontziak dira. Big-bag identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 16. hondakina: «Trapu eta xurgatzaile kutsatuak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/16.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 38 t.

Olioz, pinturaz eta disolbatzailez bustitako trapuak eta material xurgatzailea dira. Bidoi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 17. hondakina: «Koipegabetzeko urak».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/17.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L/P9//C24/51/18//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 42 t.

Laburtzeko ijezkailuari lotutako tailerreko tresnak garbitzeko instalazioan (kutxa-garbigailua) sortzen da. Edukiontzi identifikatuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 18. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatu erabilia».

– Identifikazioa: A48011555/0100002822/6/18.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5/12//C41//H3a/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: 280 kg.

Hodiaren gainean pintura-markatzea egiten duten markatzaileak garbitzean sortzen da. Hondakina identifikatzeko bidoian biltzen da postuaren ondoan.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «Azido klorhidriko agortua» hondakina zuzenean jaso behar da sortzen den instalazioko andeletatik, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, kudeatzaile baimenduari emateko.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Hondakin arriskutsuak biltegiratzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu

dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Tubos Reunidos, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako eta jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Tubos Reunidos, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Tubos Reunidos, S.A. enpresak.

l) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, olioaren hondakinen kasuan, Tubos Reunidos, S.A. enpresak bere ezaugarriak direla-eta olioari dagozkionak eta euren kudeaketa aipatutako Dekretuak arautzen dituenak, hondakin horien ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatu beharko ditu tratamendua jaso dezaten kudeatzaile baimenduari bidali aurretik. Aipatutako Dekretuak bere 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta Tubos Reunidos, S.A. enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako transferentzia-estazio batera eramaten baditu; izan ere, orduan transferentzia-estazio horretako titularrak hartuko du bere gain betebehar hori, olio erabilia azken kudeatzaileari bidali baino lehen.

m) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

n) Tubos Reunidos, S.A. enpresak PCB daukaten gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

o) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Tubos Reunidos, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira

bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

p) Tubos Reunidos, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

q) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

r) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Tubos Reunidos, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

s) Aurreko g), h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), p) eta q) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

t) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Tubos Reunidos, S.A. enpresak 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtea)
Herdoil-azala	100210	Altzairugintza/ijezketa	14.405
Kobrea eta letoia	170401	Mantentze-lan elektrikoa	8
Txatar elektrikoa	160214	Mantentze-lan elektrikoa	9
Disko urratzaileak	120121	Ekoizpena/mantentze-lanak	4
Plastikozko ontziak	150102	Ekoizpena/zerbitzu orokorrak	0,006
Karraka beltza	191001	Altzairugintza	2.388
Zepa beltza	100202	Altzairugintza	18.372
Zepa zuria	100202	Altzairugintza	14.221
Paletak eta zura	200138	Paketatzea eta bidaltzea	154
Papera eta kartoia	200101	Ekoizpena eta bulegoak	57
Plastikoak	160119	Paketatzea eta bidaltzea	29
Elektrodo-puntak	161102	Altzairugintza	15
Hobi septikoko lohi organikoak	190205	Ur beltzen arazketa	Noizean behin

Sustatzaileak «hobi septikoko lohi organikoak» hondakin ez-arriskutsuaren sortutako kantitatea aurkeztu behar du.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Tubos Reunidos, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzoruari buruzko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako betebeharrak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Tubos Reunidos, S.A. enpresak lurzoruaren neurri babesleak ezarrita izan beharko ditu:

● Hormigoizko zola biltegiratzeko eremuetan eta % 1eko isurialdea ihesak saihesteko, euri-uretarako eta balizko ihesetarako drainadura-sistema duena.

● Zepa zuriak tratatzeko eta ibilgailuen joan-etorrietako gunea erabat hormigoitzea, perimetro-horma berria eraikitzea, ibilgailuen gurpilak garbitzeko instalazioa.

● Ondoko mendiko jariatze-urak biltzea eta desbideratzea, txatar-parkean sartzea saihesteko.

● Txatar-parkean eroritako euri-urak biltzea eta solido esekien dekantagailura eramatea.

● Ke-araztegiaren inguruko urak biltzea eta solido esekien dekantagailura eramatea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurri guztiak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Tubos Reunidos, S.A. enpresak egiten dituen isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1002267-01	Zali-berogailu horizontalak	NOx CO	5 urte
2	1002267-02	Zali-berogailu bertikala (erdia)		
3	1002267-03	Berogailu/lehorgailu bertikala (eskuina)		
4	1002267-04	Makroeraso azidoa	HCl	5 urte
5	1002267-05	1. oxiebaketa (eskuina)	Partikulak	5 urte
6	1002267-06	2. oxiebaketa (ezkerra)		
7	1002267-07	Zola birakariko labea	NOx CO	3 urte
8	1002267-08	Mandrinoak berotzeko labea		
9	1002267-09	Laburtzeko labea	NOx CO	3 urte
10	1002267-10	Kalibratzeko labea	NOx CO	3 urte
11	1002267-11	OCTG tinkatzeko labea	NOx CO	5 urte
12	1002267-12	Desugertze azidoko kubeten xurgapena	HCl Partikulak	5 urte
13	1002267-13	7-8 kubetak berotzeko erregailuak	NOx CO	
14	1002267-14	11-12 kubetak berotzeko erregailuak		
15	1002267-15	JN-1 labea. Burua	NOx CO	5 urte
16	1002267-16	JN-1 labea. Isatsa		
17	1002267-17	LOI labea. Burua		
18	1002267-18	LOI labea. Isatsa		
19	1002267-19	LOI labea. Berokuntza		
20	1002267-20	JN-3 labea. Suberaketa		
21	1002267-21	Altzairutegiko xurgapen/iragazpena	Partikulak	Jarraikia
			Partikulak NOx CO SO2 HF, HCl, Cl PCDD/F Metal astunak (Zn, Pb, Ni, Hg, Cu, Cr, As, Cd) nmKOH	Urtero
22	1002267-22	OCTG lakatzeko makina	Partikulak KOG	3 urte
23	1002267-23	Lohiak lehortzeko instalazioa	NOx CO Partikulak	3 urte
24	1002267-24	Prestaketa/akaberako lakatzeko makina	Partikulak KOG	3 urte
25	1002267-25	Piezak berotzeko labea	Partikulak NOx CO	5 urte
26	1002267-26	Reeling (desmandrinatzeko makina)	Partikulak	5 urte
27	1002267-27	SPV ebaketa-zikloia		
28	1002267-28	Tenplatzeko labea (berria)	NOx CO	5 urte
29	1002267-29	Tenplatzeko labea (berria)		
30	1002267-30	Tenplatzeko labea (berria)		

Urtero neurtuko dira partikulak, CO, NO_x, SO_2, HF (HCl, Cl), dioxinak eta furanoak, nmKOH eta metal astunak (Zn, Pb, Ni, Hg, Cu, Cr, As, Cd) F 21 xurgapen/iragazpena fokuan.

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza; dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6 edo 8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko dira. Nolanahi ere, isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Parametroak neurtu ez badira edota ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baino zaharragoak badira, berriro neurtu beharko dira. Isuri atmosferikoen gainerako kontrolak adierazitako maiztasunaz egingo dira, azkeneko neurketa kontuan izanda.

Tubos Reunidos, S.A. enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak, jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren isuriak mugatzeko baldintzei buruzkoak, ezarritakoa bete behar du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

b) Neurketa jarraikia.

Tubos Reunidos, S.A. enpresak partikulen neurketa jarraikia egin beharko du «Altzairutegiko xurgapen/iragazpena» fokuan.

Neurtzeko sistema jarraikiak «Igorpen atmosferikoak tximinian neurtzeko sistema jarraikiak ziurtatzeko, aztertzeko eta egiaztatzeko Gida Teknikoan» ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu.

Neurtzeko sistema jarraikia Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarera kateatu beharko da.

Sustatzaileak neurtzeko sistema jarraikia prebentziozko mantentze-lanen plan bati jarraituz zaindu beharko du, datuen fidagarritasuna eta lortzen den gutxieneko datu-kopurua bermatuko duena. Nolanahi ere, lortutako datuen fidagarritasunaren eta kantitatearen erantzukizuna sustatzailearena izango da. Neurtzeko ekipoen erabilgarritasuna, hots, baliozko erregistroak lortzen diren denbora-tarteen proportzioa, urteko jardun-denboraren 100eko 90ekoa izango da gutxienez, Ingurumen Sailburuordetza honen baimen zehatz espresa izan ezean.

15 egun jarraian edo gehiago irauten badu, edota neurtzeko sistema jarraikia konektatu gabe egon edo gaizki baldin badabil, KEBek jarraiki neurtu beharreko parametroak kontrolatu beharko dituzte aldizka; 15 egunean behin, gertaera hasi denetik neurtzeko sistema jarraikia berriro martxan jarri bitartean.

Urtero neurtzeko sistema jarraikiaren funtzionamenduari buruzko txosten bat egin eta Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri beharko da, «Tximinietatik egiten diren isurketak etengabe neurtzeko sistemak ziurtatzeko, aztertzeko eta egiaztatzeko Gida Teknikoan» adierazitako ereduaren arabera.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan jasoko dira sustatzaileak berak (autokontrola) zein kontrol-erakunde baimenduak (KEB) egindako neurketak, mantentze-lanetako eragiketak (barne hartuta arazketa-sistemenak, esaterako, mahukak aldatzea), garbiketa, aldizkako ikuskapenak, matxuragatik egindako geldialdiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar.

Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Bulegoetako ur sanitarioak	pH-a Solido esekiak OEK OEB5 Amoniakoa Olioak eta koipeak Detergenteak	Hiru hilero	Kanpokoa
2	Aldageletako ur sanitarioak		Hiru hilero	Kanpokoa
3	Botikineko ur sanitarioak			
4	Baskulako ur sanitarioak			
5	Atezaindegiko ur sanitarioak			
6	Hotzean tenkatzeko ur sanitarioak			

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduko 255. artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean adierazitako parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Txatar-kontsumoa	t txatar kontsumitu / t altzairu ekoitzi
Hondakin arriskutsuak	kg altzairutegiko hauts / t altzairu ekoitzi
	Hondakinak baliotzearen %
Hondakin ez-arriskutsuak	t zepa beltz / t altzairu ekoitzi
	t zepa zuri / t altzairu ekoitzi
	kg erregogor / t altzairu ekoitzi
	kg herdoil-azal / t altzairu ekoitzi
Isuriak	t CO2 / t altzairu ekoitzi
Energia-kontsumoa	Kwh gas natural / t altzairu ekoitzi
Ur-kontsumoa	m^3 ur / t altzairu ekoitzi

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko baldintza akustikoak sei hilabetean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat egin beharko du, neurtzeko metodoak zehaztuz. Proposamena ebazpen honen C.6 atalean adierazitako ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginean sartuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Bizkaiko Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek ondorengoak zehaztuko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.221 epigrafea «Altzairuzko hodien fabrikazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Tubos Reunidos, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako

prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako oinarrizko proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Olioak, gehigarriak, erretxinak eta hondakinak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien gainazal guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira. Halaber, isuri barreiatuak sortzen diren eremuan xurgapen-sistema bat egongo dela bermatuko da.

h) Ihesak eta isuriak sortzen direnean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

k) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

l) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar bada, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

n) Instalazioek lohi-tratamendua badute, xukatutako ura arazketa-instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

o) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

p) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

q) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

r) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

s) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

t) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez.

u) Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

v) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, Tubos Reunidos, S.A. enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

w) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketa edo isuri atmosferikoren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS DEIAK eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gainditu badira, isuriei buruzko datuak.

- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

x) Aurreko atalean ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ondorengo gertaeraren bat jazo dela:

1.– Segidako analizatzailean neurtutako orduko datu balioztatu baten kontzentrazioak muga-balioa % 100ean gainditzea. Horrelakoetan, gainditu den unetik gehienez ere ordubetera jakinaraziko da.

2.– Segidako analizatzailean neurtutako orduko datu balioztatu baten kontzentrazioak muga-balioa % 40an gainditzea. Horrelakoetan, gainditu den unetik gehienez ere 24 ordura jakinaraziko da.

3.– Ekipoek 24 ordu baino gehiagotan datu fidagarririk ez ematea ekartzen duen edozein matxura edo akatsa gertatzea. Horrelakoetan, isurien datu fidagarririk ez dagoenetik gehienez ere 8 ordura jakinaraziko da.

4.– Instalazioaren prozesu jarraiki batean aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne, gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko dira.

y) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Tubos Reunidos, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek

guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.2.4 (Txatar-parkeko eta zepak biltegiratzeko eremuko euri-uren egokitze-planak aurkeztea; industria-uren isurketa zero dela egiaztatzen duen erakunde laguntzailearen txostena aurkeztea); B.1.3.1.g) eta B.1.3.2.d) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.p) eta B.1.3.2.f) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.3.2.a) (EHZen ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); B.1.4 (Lurzorua babesteko baldintzak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola); C.1.1 (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.h) (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa) eta D.3.y) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Tubos Reunidos, S.A. enpresak ebazpen honen xede den altzairuzko hodiak fabrikatzeko instalazioan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Tubos Reunidos, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Tubos Reunidos, S.A. enpresari, Amurrioko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Tubos Reunidos, S.A. enpresak Amurrioko (Araba) udalerrian sustatutako altzairuzko hodiak fabrikatzeko lantegiari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, lau alegazio-idazki aurkeztu dira.

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumeneko baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Jarraian, aipatutako alderdiak kontuan nola izan diren xehetasunez erakusten da:

1.– Hondakinak.

Idazki horietan adierazten da Tubos Reunidos, S.A. enpresak Nerbioi ibaiaren ondoan uzten dituela galdaketako zepak, eta ibaira iragazteko eta bertako faunaren gaineko eragina sortzeko arriskua dagoela.

Sustatzaileak aurkeztutako agirien arabera, galdaketako zepak, bai beltzak, bai zuriak, enpresa azpikontratatu batek erretiratzen ditu, eta tratamendu bat igarotzen dute balioztagunera eraman aurretik. Ebazpen honen B.1.3.2 atalean hondakin horien kudeaketa zuzena burutzeko neurriak ezarri dira. Halaber, B.1.4 atalean, lurzoruari dagokionez, Tubos Reunidos, S.A. enpresak lurzoruaren kutsadura saihesteko ezarrita izan beharko dituen neurri babesleak adierazi dira. Gainera, ebazpen honen F atalak dioenez, Tubos Reunidos, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu behar dizkio sortutako mota guztietako hondakinei buruzko datuak.

2.– Isuriak.

Bestetik, zepak isurtzean eta birrintzean eta kamioiak deskargatzean sortzen den hautsa soroetan geratzen da eta auzokideek arnasten dute. Hori dela medio, eremua egokitzea eskatzen dute, hauts-isuria murrizteko.

Ebazpen honen B.1.1.3 eta C.1 ataletan partikulak isurtzeko muga-balioak ezarri dira, eta horiek bete eta aldizka kontrolatuko beharko dira, dagokion fokuaren arabera.

Gainera, deskargatzean sortutako isuriei dagokienez, isuri barreiatu horiek murrizteko neurriak hartuko dira, D.3.g) atalean adierazten denez.

3.– Zaratak eta bibrazioak.

Tubos Reunidos, S.A. enpresak espedientean aurkeztutako zarata-ebaluazioa osatugabea eta zaharra dela adierazten da; hortaz, hori zabaltzea eta betetzea eskatzen da, egungo neurketen eta indarrean den araudiaren arabera.

Ebazpen honen B.1.5 eta C.5 ataletan bete beharreko mugak eta zarata sortzeari dagokionez burutu beharreko kontrolak adierazi dira, hurrenez hurren.

Muga horiek ondorengoak izango dira:

● Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) eta 30 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko

balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak eta 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

● Zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

● Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

Zaratari buruzko azterlana egiteko erabilitako zarata-araudia zaharra dela eta indarrean den araudia erabili behar litzatekeela eta, adierazi beharra dago Tubos Reunidos, S.A. enpresak ingurumeneko baimen bateratua eskatu zuen unean egungo araudia ez zegoela indarrean, eta hortaz, egindako azterlana egokitzat jotzen da.